

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIATZATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, tokiko gobernu batzarrak, 2024ko uztailaren 18an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

“4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **2024ko deialdia- Gizarte Zerbitzuen arloko elkarteei zuzenduriko dirulaguntzak**

Alkate-udalburuaren 2024ko uztailaren 11ko proposamenak honela dio:

Itxaro Leibar (Ongizate teknikaria eta batzordeko idazkaria) 2024ko uztailaren 10ean egindako ebazpen txostenak honela dio:

“ Udaleko ONGIZATEA teknikaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk.: 2024ZDKO0012
Interesduna: OÑATIKO UDALA
Gaia: 2024ko deialdia- Gizarte Zerbitzuen arloko elkarteei zuzenduriko dirulaguntzak

OÑATIKO UDALAK hasitako prozedura aztertu da.

Gertakariak:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalbatzak 2022ko otsailaren 24ko Osoko Bilkuran onartu zituen Gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteei dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez emateko oinarri arautzaileekin bate eginez (GAO 2022-03-11), Tokiko Gobernu Batzarraren bidez erabaki zen (2024ko martxoaren 14koa) 2024ko laguntzen deialdia egitea (GAO 2024-04-08.- 67 zkia)

Bigarrena.- Gizarte Zerbitzuen arloko elkarteei zuzendutako dirulaguntzak. 2024ko aurrekontu ekitaldiari dagozkion laguntzetarako, guztira hogeita bi mila bostehun eta hamasei euro eta berrogeita hamar zentimo (24.768,21€) gastua baimentzen da, 1.0500.481.231.00.03.2024(167); kontu sailen kargura .

Eskaerak egiteko epea maiatzaren 9an bukatu zen. Guztira, 28 elkartek egin dute eskaera epe barruan.

Gertakarien balorazioa:

Lehenengoa.- Instrukzio-faseari hasiera emateko Gizarte Zerbitzuen sailak eskaera horien aurre-ebaluazioa egin du. Ebaluazio horretan egiaztatu da eskatzaileek betetzen dituztela

dirulaguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak (I. Tituluaren 5. artikuluan jasota daude) eta aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoela eta zuzena dela.

Eskaerak aztertu ondoren, guztiek betetzen dituzte eskaera onartzeko baldintzak.

Baldintzak betetzen dituzten elkarte guztien balorazioak egin dira, honako hauek kontuan hartuta:

- LEHENENGO: Araudiaren II. Tituluaren 3. artikuluan Hautapen eta balorazio irizpideak:

1. Dirulaguntzak ematerakoan honako irizpideak hartuko dira aintzakotzat (gehienez 52 puntu). Gutxienez 12 puntu ateratzen ez dituzten eskaerak ezingo dira diruz lagundu.

2. Banatzeko den dirua denetara lortutako puntuaketaren arabera banatuko da, punturik gehien lortu duen erakundetik hasi eta banatzeko den dirua erabat bukatu arte.

3. Irizpideak eta puntuak

3.1. Programa edo jardueraren orientazioa (gehienez 10 puntu).

- Herritarrei zuzendutako jarduera (6 puntu).

- Eragindako pertsoneri edo bazkideei zuzendutakoa (4 puntu)

3.2. Jardute eremuari dagokionez (gehienez 18 Puntu)

- Entitate eskatzailearen egoitza soziala Oñatin (6 puntu)

- Entitateak zerbitzuak eskaintzen ditu Oñatin edo jarduerak antolatu (4 puntu)

- Entitateak Oñatiko bazkideak ditu (4 puntu)

- Oñatiko bizilagunei zerbitzuak eskaintzen dizkieten entitateak (4 puntu)

3.3. Entitatearen funtzioak eta aurkeztutako jardueren helburuak (gehienez 24 puntu).

- Udal Gizarte Zerbitzuen zereginekin osagarritasuna (6 puntu)

- Oñatiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailarekin lankidetzat (6 puntu)

- Gizarte arloko boluntarioratza sustatzeko helburua duten ekimenak (6 puntu)

- Indarrean dagoen Udaleko berdintasun-planaren helbururen bat edo batzuk lortzearekin duen lotura (6 puntu)

- BIGARRENKO: Puntuazio guztiak eman ondoren:

- Dirulaguntza-kopurua onartzeko unean, kontuan izan behar dira I. Tituluaren 7. dirulaguntza kopurua) eta 8. (dirulaguntza emateko prozedura) artikuluetan jasota daudenak.

- Ematen diren laguntzak ekintzaren kostuaren %100 izan daitezke.

- Dirulaguntza norgehiagoka-erregimenean emango da.

Bigarrena.- Hona hemen guztiak aztertu ondoren puntuaketak eta zenbatekoak

| | | | | | | |
|---|---|--|----|------|--------|-------|
| 1 | ACABE GIPUZKOA (Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkartea) | OSASUN LOTURAK programa 2024: elikadura- nahasmenduak dituzten familientzako eta pertsonentzako prebentzio eta laguntza programak. 10 familia oñatiar bazkide ESKATUTAKOA: 2.000€ | 34 | 3,99 | 988,40 | 2.000 |
|---|---|--|----|------|--------|-------|

| | | | | | | |
|---|---|---|----|------|----------|---------|
| 2 | ADAHIGI (Asoc de deficit de atención con hiperactividad) | Arreta Goiztiarra programa bazkideei zuzenduta. Familiei laguntza, bizitzeko kalitatea hobetu. Oñatiko 9 bazkide ESKATUTAKOA: 9.950,00€ | 24 | 2,82 | 697,70 | 9.950 |
| 3 | ADEMG (Esklerosi Anizkoitza elkarte) | Proiektu orokorra 2024 urterako:- Jardunaldiak, ikastaroak eta batzarrak - Aisia eta denbora librea - Informazioa eta diru bilketa " MOJATE - BUSTI ZAITEZ" Kanpaina URTERO OÑATIN EGITEN DEN EKINTZA - Errehabilitazio integralerako zentroa - laguntza psikologikoa gaixo eta familiakoei - fisioterapia, - logopedia - Gizarte lana - Eremu soziala Oñatiko bazkideak 3 ESKATUTAKOA: 1.200,00€ | 34 | 3,99 | 988,40 | 1.200 |
| 4 | AECC (Asoc. Española contra el cáncer) | Gaixo onkologikoei eta senideei laguntza soziala zerbitzu ezberdinen bidez: informazioa eta orientazioa, laguntza teknikoak, gizarte-baliabideen kudeaketa eta harrera pisua.Oñatiko Bazkideak 138 ESKATUTAKOA: 1.548,70€ | 40 | 4,69 | 1.162,83 | 1,548,7 |
| 5 | AGI (Gipuzkoako ikusmen urria dutenen elkarte) | Ikusmen urritasuna duten pertsonentzako eta haien familientzako laguntza psikosoziala eta hezkuntza-ekintzak programa / Oñatiko 13 bazkide ESKATUTAKOA: 6.250,00€ | 30 | 3,52 | 872,12 | 6.250 |
| 6 | AGIFES (Buru osasun arazoak dituzten pertsonen eta senideen Gipuzkoako elkarlana) | Harrera, informazio, orientazio eta jarraipen programa. Sentsibilizazio-kanpaina. Eskualdeko senide eta zaintzaileentzako laguntza programa. Oñatiko 8 bazkide. ESKATUTAKOA: 3.000,00€ | 30 | 3,52 | 872,12 | 3.000 |

ESKUB6dfc790-6e1c-4b12-86c8-8118749726ec

| | | | | | | |
|----|--|--|----|------|----------|-------|
| 7 | ALCER | Arreta psikosozialeko eta soziosanitarioko zerbitzua. Laguntza programak: Laguntza psikosoziala - laguntza soziala - familia atsedena - ohitura osasuntzuen laguntza eta sustapena Oñatiko Bazkideak 5 ESKATUTAKOA: 1.000,00 | 24 | 2,82 | 697,70 | 1.000 |
| 8 | ARANTZAZUKO SANTUTEGIA | Egonaldiak Arantzazuko Santutegian Elkarrekin Bila proiektuarekin (bizi-zailtasunak dituzten pertsonen zuzendua) . Oñatiko bazkideak 9 ESKATUTAKOA: 1.500.00 | 28 | 3,29 | 813,98 | 1.500 |
| 9 | TRATU TXARRAK JASOTAKO HAURREI LAGUNTZA EMATEKO EUSKAL ELKARTEA | 2024ko Poiektua: 2025eko egutegia; 300 ale Oñatin banatzeko Gaia: haurtzarora eta ingurumena Oñatiko bazkideak ? ESKATUTAKOA: 1,800,00€ | 26 | 3,05 | 755,84 | 1.800 |
| 10 | ATECE - GIPUZKOA (Burmuineko gaitza dutenen Gipuzkoako elkarteak) | Garuneko kaltea duten pertsonentzako eta haien familientzako arreta integrala (arreta psikologikoa- gizarte arreta - prestakuntza ikastaroak - hitzaldiak - fisioterapia - logopedia - memoria-tailerra - opor-programa) Oñatiko bazkideak 6 ESKATUTAKOA: 1.000,00€ | 24 | 2,82 | 697,70 | 1.000 |
| 11 | ATZEGI (Gipuzkoako Adimen Urritasuna duten Pertsonen Aldeko Elkarteak) | Elkartegintza eta Familia Laguntza Zerbitzua indartzeko sentsibilizazioa eta komunikazioa. Bazkideak 169 (bazkide kolaboratzaile + Atzegizale) erabiltzaileak 31 ESKATUTAKOA: 1,705,00€ | 40 | 4,69 | 1.162,83 | 1.705 |

| | | | | | | |
|----|---|--|----|------|----------|-------|
| 12 | BIHOTZEZ(Sortzetiko kardiopatiak duten haurrak, gazteak eta haun familien elkarteak) | Sortzetiko kardiopatiak dituzten ume eta familien sostengua eta jarraipena / Arreta integralerako programa Oñatin bazkide 1 ESKATUTAKOA: 2.400,00€ | 24 | 2,82 | 697,70 | 2.400 |
| 13 | BIZI BIDE | Fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea duten gaixoen bizi-kalitatea eta gizarteratzea eta laneratzea hobetzea. Baita entzefalitis mialgikoa, sentsibilitate kimiko multiplea eta elektrohipersentikortasuna Oñatiko bazkideak: 12 ESKATUTAKOA: 3.000,00 | 20 | 2,35 | 581,41 | 3.000 |
| 14 | DUINTASUN ELKARTEA | Pentsio publiko duien eta gutxienekoa lortzea. Oñatiko adineko pertsonen eskubideak defendatu. 12 bazkide ESKATUTAKOA:750,00 | 36 | 4,23 | 1.046,54 | 750 |
| 15 | ELIKAGAI BANKUA.- Eskualderako biltegi orokorra - Bergaratik beste herrietara bideratzen da OÑATI barne | Pñatin 456 pertsojna artatzeko elikagaiak bildu, bilegiratu eta doan banbanatu Oñatin 2023an 39569 K. banatu ziren. ESKATUTAKOA: 2.724,00€ | 40 | 4,69 | 1.162,83 | 2.724 |
| 16 | ESPETXERATUEKIKO PASTORALTZA | Martutene, zaballa eta Aina Mennin kondena betetzen ari diren gizon-emakume presoek laguntzasun gertutasuna eta jarraipena egin. Bakideak: 17 ESKATUTAKOA: 2.000,00€ | 30 | 3,52 | 872,12 | 2.000 |
| 17 | GAUTENA | AEN duten pertsonen laguntza programak; familieintzako laguntza programak eta erakundeari berari laguntzea helburu duen jarduera-eremua 2024ko PROGRAMA: Aisialdi programa eta Antzerki taldea Oñatiko bazkideak 8 ESKATUTAKOA: 1.000,00 | 36 | 4,23 | 1.046,54 | 1.000 |

ESKUBIDEC790-6e1c-4b12-86c8-8118749726ec

| | | | | | | |
|----|--|---|----|------|----------|-------|
| 18 | GURUTZE GORRIA | Eskaera: Egoera zaugarrian dauden pertsonei material didaktikoa eta hezitzailea banatzea (eskola materiala). Oñatiko bazkideak: 373 ESKATUTAKOA: 1.500,00€ | 40 | 4,69 | 1.162,83 | 1.500 |
| 19 | GENE (Gipuzkoako Eritasun Neuromuskularren elkartea) | Kaltetuentzako arreta eta zerbitzuak - Elkartegintza eta integrazio soziala - Arreta sozio-sanitarioa - Fisioterapia Hurbilean Oñatiko bazkideak 7 - ESKATUTAKOA 1.500€ | 14 | 1,64 | 406,99 | 1.500 |
| 20 | ITURRIGORRI ELKARLANA (Hezur- muinaren emaileen elkartea) | 2024ko proiektua GUZTIEN KONPROMISOA Ekintzak: - Harrera aholkularitza eta laguntza gaixoari eta familiarari - Sentsibilizazioa, zabalkundea eta sustapena - Formakuntza eta autolaguntza taldeak Oñatiko Bazkideak 142 ESKATUTAKOA: 1.670,10€ | 34 | 3,99 | 988,40 | 1.670 |
| 21 | Gipuzkoako Itxaropen Telefonoa 900840845 | Bi zerbitzu: ALBAINDU (entzute aktiboa, laguntza emozionala eta aholkularitza) eta BADABIDEBAT: gipuzkoako gazteei zuzendutako laguntza emozionala ESKATUTAKOA: 1.000,00€ | 32 | 3,76 | 930,26 | 1.000 |
| 22 | IZAN FUNDAZIOA GIZAKIA HELBURU | Drogen kontsumoak eragindako arazoek tratamendurako programak. BAZKIDERIK EZ/ 2023an Oñatiko erabiltzaileak xxx ESKATUTAKOA: 1.500,00€ | 26 | 3,05 | 755,84 | 1.500 |

ESKUB6dfc790-6e1c-4b12-86c8-8118749726ec

O Ñ A T I K O U D A L A

| | | | | | | |
|----|------------------------|---|-----|---------------|------------------|-------|
| 23 | IZAN NORBERA FUNDAZIOA | Arrisku egoeran edo babesik gabe dauden nerabeen laguntzarako programak (arreta eta orientazioa). 13 eta 17 urte artean dauden nerabeei zuzenduta- Seme alabekin harreman gatazkatsuak dituzten gurasoei arreta ESKATUTAKOA: 1.300,00€ | 26 | 3,05 | 755,84 | 1.000 |
| 24 | ODOL EMALEAK | Oñatiko odol emaleen taldea sustatu eta sostengatu eta odol ateraldiak egiteko baliabideak ziurtatuBazkideak 273 Zerbitzuaren onuradun kopurua 491 ESKATUTAKOA: 1.790,00€ | 34 | 3,99 | 988,40 | 1.790 |
| 25 | ORTZADAR | Bazterkeria arriskuan dauden eta aniztasu funtzionala duten pertsonen aldeko laguntza programa. Oñatiko bazkideak 1 ESKATUTAKOA: 1.500,00€ | 26 | 3,05 | 755,84 | 1.500 |
| 26 | PAUSOKA | Aniztasun funtzionala duten haurrentzako errehabilitazio integraleko zentroak Bazkideak 1ESKATUTAKOA: 2.000,00€ | 24 | 2,82 | 697,70 | 2.000 |
| 27 | SAREA FUNDAZIOA | Bidean Heziketa Zentroaren 2024ko aisialdia programa. 2024an 5 oñatiar daude bertan ESKATUTAKOA: 1.500,00€ | 30 | 3,52 | 872,12 | 1.500 |
| 28 | TRAUTI | Desgaitasuna duten pertsonen integrazioa sustatu - Oñatiko bazkideak 13 ESKATUTAKOA:1.450,00 | 46 | 5,40 | 1.337,25 | 1.450 |
| | | | 852 | 100,00 | 24.768,21 | |

Oinarrien baldintzak kontuan harturik, honako elkarteek gainditzen dute beraiek eskatutako dirulaguntza-kopurua; beraz elkarte horiei eskatutakoaren %100 dagokie, hona hemen elkarte horiek:

| Eskaera zenbakia | Elkartea | 1. banaketaren onarpena | Eskatutakoa | Azken onarpena | Diferentzia |
|---------------------|-------------------|-------------------------|-------------|----------------|-------------|
| 14 | Duintasun Elkarte | 1.046,54€ | 750,00€ | 750,00€ | 296,54€ |
| 17 | Gautena | 1.046,54€ | 1.000,00€ | 1.000,00€ | 46,54€ |
| Diferentzia Guztira | | | | | 343,08€ |

Soberan gelditzen diren 343,08 euroak 26 elkarteren artean banatuko dira. Guztira 28 eskaera dira, eta horiei kendu behar zaie 2 elkarte. Horrela, elkarte bakoitzari 13,20€ gehitu zaizkio. Batuketak ematen du 2024. urteko deialdirako onartutako diru-kopurua (24.768,21€).

Proposamena:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalbatzak 2022ko otsailaren 24ko Osoko Bilkuran onartu zituen Gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteei dirulaguntzak norgehiagoka-prozeduraren bidez emateko oinarri arautzaileekin bate eginez (GAO 2022-03-11), Tokiko Gobernu Batzarraren bidez erabaki zen (2024ko martxoaren 14koa) 2024ko laguntzen deialdia egitea (GAO 2024-04-08.- 67 zkia)

Bigarrena.- Eskaerak egiteko epea maiatzaren 9an bukatu zen. Guztira, 28 elkartek egin dute eskaera epe barruan. Instrukzio-faseari hasiera emateko Gizarte Zerbitzuen sailak eskaera horien aurre-ebaluazioa egin du. Ebaluazio horretan egiaztatu da eskatzaileek betetzen dituztela dirulaguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak (I. Tituluaren 5. artikuluan jasota daude) eta aurkeztutako dokumentazioa osorik dagoela eta zuzena dela.

Eskaerak aztertu ondoren, guztiek betetzen dituzte eskaera onartzeko baldintzak.

Hirugarrena.- Araudiaren II. Tituluaren 3. artikuluan Hautapen eta balorazio irizpideak:

1. Dirulaguntzak ematerakoan honako irizpideak hartuko dira aintzakotzat (gehienez 52 puntu). Gutxienez 12 puntu ateratzen ez dituzten eskaerak ezingo dira diruz lagundu.

2. Banatzeko den dirua denetara lortutako puntuaketaren arabera banatuko da, punturik gehien lortu duen erakundetik hasi eta banatzeko den dirua erabat bukatu arte.

3. Irizpideak eta puntuak

3.1. Programa edo jardueraren orientazioa (gehienez 10 puntu).

- Herritarrei zuzendutako jarduera (6 puntu).

- Eragindako pertsonen edo bazkideen zuzendutakoa (4 puntu)

3.2. Jardute eremuari dagokionez (gehienez 18 Puntu)

- Entitate eskatzailearen egoitza soziala Oñatin (6 puntu)

- Entitateak zerbitzuak eskaintzen ditu Oñatin edo jarduerak antolatu (4 puntu)

- Entitateak Oñatiko bazkideak ditu (4 puntu)

- Oñatiko bizilagunei zerbitzuak eskaintzen dizkieten entitateak (4 puntu)

3.3. Entitatearen funtzioak eta aurkeztutako jardueren helburuak (gehienez 24 puntu).

- Udal Gizarte Zerbitzuen zereginekin osagarritasuna (6 puntu)

- Oñatiko Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailarekin lankidetzatza (6 puntu)

- Gizarte arloko boluntarioria sustatzeko helburua duten ekimenak (6 puntu)

- Indarrean dagoen Udaleko berdintasun-planaren helbururen bat edo batzuk lortzearekin duen lotura (6 puntu)

Laugarrena: Puntuazio guztiak eman ondoren- Dirulaguntza-kopurua onartzeko unean, kontuan izan behar dira I. Tituluaren 7. dirulaguntza kopurua) eta 8. (dirulaguntza emateko prozedura) artikuluetan jasota daudenak.

- Ematen diren laguntzak ekintzaren kostuaren %100 izan daitezke.

- Dirulaguntza norgehiagoka-erregimenean emango da.

Horiek kontuan harturik, honako elkarteek gainditzen dute beraiek eskatutako dirulaguntza-kopurua; beraz elkarte horiei eskatutakoaren %100 dagokie, hona hemen elkarte horiek:

| Eskaera zenbakia | Elkartea | 1. banaketaren onarpena | Eskatutakoa | Azken onarpena | Diferentzia |
|---------------------|--------------------|-------------------------|-------------|----------------|-------------|
| 14 | Duintasun Elkartea | 1.046,54€ | 750,00€ | 750,00€ | 296,54€ |
| 17 | Gautena | 1.046,54€ | 1.000,00€ | 1.000,00€ | 46,54€ |
| Diferentzia Guztira | | | | | 343,08€ |

Soberan gelditzen diren 343,08 euroak 26 elkarteren artean banatuko dira. Guztira 28 eskaera dira, eta horiei kendu behar zaie 2 elkarte. Horrela, elkarte bakoitzari 13,20€ gehitu zaizkio. Batuketak ematen du 2024. urteko deialdirako onartutako diru-kopurua (24.768,21€).

Bostgarrena.- Arestian jasotako guztia kontuan izanik, era berean, 2024ZDKO0012 espedientean dagoena, dirulaguntza-kopuru hauek onartzea:

Seigarrena.- Dirulaguntza hauen onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan (BDNS) argitaratzea.

Zazpigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari, diruzainari eta arloko teknikariari jakinaraztea.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.“

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZDKO0012-TGB ziurtagiria/JGL certificado (OÑATIKO UDALA)